



GAUTENA

24 Zk.

Ekaina 2003

GAUTENA: 25. URTEURRENA

2003 urte honetan GAUTENAK 25 urte betetzen ditu. Hasierako kezkek, baliabiderik eza eta lehen uneetako itxaropena gainditu eta guztiok harro sentitzeko moduko errealitate bihurtu da guztia.

Gauregun, GAUTENAK, Administrazio publikoen laguntzaz, autismoaren inguruko trastornoak dituzten pertso-nei zerbitzu osoa emateko sarea eskaintzen du: Diagnostika eta Tratamendua, Eskolatzeta, Eguneko Zerbitzuak, Etxebizitza, Aisialdia eta familiar Laguntza. 150 profesional, hauek ia %70 lanaldi osoan, Gipuzkoako 278 familiar zerbitzua ematen dien sare honetan ari dira lanean. Gure zerbitzuek izandako garapena garrantzitsua da, eta horixe azpimarratzen dute gure alorrean ari diren eta gure lana ezagutzera hurbiltzen diren profesio-nalek. Gure ahalegi-na nazioartetik gure alorrari dagozkion gauza berri guztien gainean egotean da-tza, eta ahalegin ho-nek munduan autismoaren inguruan dauden programa onenekin harremanetan egotea ahalbide-tu digu. Gaur egun, Zerbitzuen baldintzak hobetzeko eta behar berriak asetzen saiatzeko egiten dugun lanak ez dauka etenik, eta besteak beste, Eguneko Zerbitzuentzat eta Etxe-bizitzentzat oinarri berriak ari gara finkatzen.



Baina ekintza zehatzak baino garrantzitsuagotzat jotzen ditugu autismoa duten pertsonen eman beharreko erantzunak bideratzeko moduaren, edo etorkizunerako proiektzioa bultzatzen duten ideien inguruko gaiak. Hau da, minusbalotasuna duen pertsona ekintza guztien muinean kokatzeko ahalegina, alor teknikoan eta kudeaketa alorrean berritzaile izateko konprometua, aplikatutako ikerkuntza, ezagutzaren kudeaketa hobetzea, gure Zerbitzuen erabiltzailearen eta bere familiar bizi-kalitatea bermatzea, arreta eskaintzen diegun pertsonen behar eta preferentzienganako hurbilpen etikoa.

Hurrengo urteetarako giltzaritako batzuk, hauek izan behar dute. Hauekin batera, instituzioen laguntzak, familiar partehartzeak, profesionalen errekonoizimenduak eta babes sozialak finkatu behar dute azken 25 urteotako ibilbidea, ahalegin osoz, autismoa duten pertsonen eta euren familiar onerako, etorkizunerantz bideratuz.

Ramón Barinaga
Zuzendaria

25 URTE GAUTENAREKIN

Badirudi atzo izan zela. Autismoa izan zezakeen seme edo alaba bat zuten gurasoak bildu, eta Elkarte bat sor-tu genuen euren beharrak asetzeko zerbitzuak eskain zitzan.

Hasieran, 12 autista eta 5 terapeuta zegoen. Orain 278 familia eta 150 profesional gara, eta laguntza Zerbitzue-tako sare osoaren babesa dugu gainera.

GAUTENA gaur egun bere alorrean izena duen insti-tuzioa da, eta honek, guraso gisa konfiantza ematen digu, eta Elkarteko zuzendari gisa harro sentiarazten gaitu.

Hasieratik GAUTENAn izan garen familiar, eta geroa-go sartu direnen artean sarritan aipatu dugu GAUTENAREN egindako lanak eta ahaleginak merezi izan duela. Nik dakidala, gutariko bat bera ere ez da damu-tu bere



denbora (bat-zutan denbora libre eta bestetan berriz, denbora gehiago) GAUTENA sortzen eta elkarteari jarraipena egiten eta laguntzen emateagatik.

Zera azpimarratu nahi nuke, gure Zerbitzuen garapen mai-la hau posible egin duen babes sozial handia. Euskal Administrazio Publikoak, Eusko Jaurilaritzen

Heziketa eta Osasun Saitetik, Foru Aldundiko Zerbitzu Sozialetatik eta beste instantzia batzuetatik (hainbat udaletatik, adibidez, Donostiakotik; KUTXA Fundazioaren gizarte-ekintzatik eta beste hainbat Fundaziotatik) babesa es-kainiz egin dute posible gure ibilbidea.

Aita naizen aldetik, elkarrearen etorkizunari begira, ga-rantzitsutzat jotzen dut GAUTENAREN zaintza pean seme-alabak dituzten familiar dedikazioa lortzea, azken finean, euren sendia baikara (guraso, anai-arreba eta beste senitartekoak) autismoa duen gure familiar ki-dearen bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzen saiatzeko erantzukizuna dugunak.

Ez dut gehiago luzatu nahi. Hauxe errepikatu nahi dut bakarrik, 25 urteotan egindako lan guztiak eta GAUTENARI eskainitako dedikazioak merezi izan duela. Etorki-zunean ere, GAUTENAREN aldeko apustua egiten dute-nek iritzi bera izango dutela espero dut.

José Antonio Zubia
Lehendakaria

AUTISMOA ETA GU, 25 URTE GEROAGO

Urteurrenek igarqtako denboraren gainean hausnartzea eta bizitako esperientzia, gure historia pertsonal eta instituzionalean barneratzea lortzen dute. Oroitzapenak zentzua ematen digu eta etorkizuna modu jakin batean ikustarazten digu. Modu hau gehienetan baikorra izaten da, orokorrean, qprabeherak eta zailtasunak ahaztu egiten baititugu, edo errepikatuko ez diren itzaropena izaten baitu

gu.

Gureari gagozkolarik, GAUTENAren iraganean pentsatzeak baikor sentiarazten nāu, baina ez aurre egin behar izan ditugun ara-zoak ahaztu ditudalako, elkarrekin izandako lorpenak argi asko ikusten direlako baizik. Mende laurden honetan autismoaren inguruko

Laquntza Psikiatrikoko Programa mediku-psikologia sesioetan parte hartzen duten erabiltzaileen beharrak asetzen saiatzen da, baita eguneroko garatzen diren programetan parte hartzen duten pertsonenak ere: ikasge-lak, CAD, Etxebizitza eta Aisialdia eta Familia Laquntza.

Programa hau 2 mediku psikiatrak eta 3 psikologok daramate aurrera.

1978. urtean programa hauxe abian jarri zenetik, tratamendua egokitzen Joan da, laquntza ematen diegunlamilien behar terapeutiko, pedagogiko eta estrategikoak hobe asetzeko.

Azken urteetan garrantzia handiko bi gauza

trastomoak komunikabideetan lekua izan dezaten lortu dugu; osasun eta heziketa profesionalen gero eta azkarrago identifikatzen dituzten; elkarrean lankidetzak dakarren «eredu gipuzkoarra» onartzen duten autoritateek, trastomok modu global eta arduratsuan zain dituzten; gero eta solidarioagoa jzango den gizarte honek arazok aitor ditzan.

Urteotan tratatu ditugun pertsona hauek egokitze gaitasun eta portaera aldetik hobekun-tza nabariak izan ditzaten lortu da, eta hōrrela, laquntzarekin izan arren, komunitatean parte har dezaten eta bizi-kalitate maila egokia izan dezaten ahalbidetu da. Teknikoki eta kudeake-ta aldetik emandako aurrerapausoek gure in-terbentzioa egokiaqoa izatea ekarri dute eta

ikerkuntzak gero eta eraginkorrago izatea eraztuko du.

Egindako lana ez da euren eta euren fami-lien onerako soilik izan, guk izan dugu ondorio positiborik bai profesional, bai pertsonalki. GAUTENA lanean dihardugun askorentzat, gure lanak geure historia pertsonala eta gure bizi-egitasmoa antolatuta izan du eta antolatzen du. Martxan jarritako egitasmo honekiko inplika-zip sakon hōnek, urteurren hau harrotasun in-dibidual eta instituzionalez ospatzera garama-tza. Urteotako oroitzapenek gure norbanako bizitza eta bizitza kolektiboari zentzua ematen eta emango diote. Zorionak denoi!

Joaquín Fuentes
Mediku aholkularia

TRATAMENDUA

egiaztatu dirā. Batetik, Gipuzkoan, Garape-neko Trastorno Orokorreko kasu kopuruen igoera, azken ikerketa epidemiologikoen ara-bera. Gehienetan, ohiko osasun eta heziketa dispositiboek defektatu dituzte kasuok, eta genietan, GAUTENA, beharrezko medioe-kin arreta eskaintzera konprometitirik dagoen bideekin. Detekzio azkar hau, GAUTENAko lan-talde osoak osasun eta heziketa autori-tateak eta autoritate sozialak sentibillizatzeko egindako lanak ahalbidetu dute eta auto-ritateok, behar diren medioak jarri dituzte la-quntzeko.

Bestetik, autismoa edo garapeneko beste trastorno orokorrak diagnostikatu zitzaizkien haurrak, gaur egun, euren zailtasunak insti-

tuzionalizazioa saihesteko moduan hobetu dituzten eta komunitatean gero eta integra-tuago dauden helduak bihurtu direla ikustea.

Honetan guztian eragina izan dute, jakina, GAUTENAko jangileek jarraitu dituzten aurre-rapen zientifikoak, autismoaren munduan emandako aurrerapauso zientifikoek, alegia.

Beraz, orain dēla 25 urte mundu hau eze-zaguna bazen, ebidentzia genetikoek, neuro-zientifikoek eta garuneko biokimikoek trastor-noaren zergatiak hpbeto ulertzera garamat-zate eta, batik bat, itzaropenez beteniko etor-kizun hurbila sortzea ahalbidetzen digute.

Ignacio Gallano
Zuzendari Medikoa

HEZIKETA ZERBITZUA. 25 URTE GEROAGO.

Zergatik ari dirā obretan artxibategi za-harrelian? Nor ote dator auzora? Horrelako galderak egiten zizkieten euren buruei Aie-feko bizilagunek orain dēla 25 urte. Uda-lak eraikin hau elkarre berri bati utzi dio. Autismo elkarre bati. Zer ote da hori?

Hōrrela, 1978an, gaur egun GAUTE-NAKO bulegoak dauden eraikina egokit-zeko lanak hasi ziren. Baina obrak zira-uen bitartean lan egin beharra zegoen.

Iragaitzazkoen Etxearen azken solai-ruan 3 ikasgela zabaldu ziren eta bertan hartu zituzten gaur helduak diren lehen haur horietariko batzuk. Haien lan egiten zuten profesionalen zailtasunak dituzte gogoan, material eskasia, behin eta berriz abesti bera entzuteko erabiltzen zuten disko-jogailua, jokatzerako orduan ezjakintasuna... Baina ezin dituzte ahaztu, ezta ere, gauza onak, guztiak edozer-tarako prest egotea, guraspek euren au-toak uzten zituztela batetik bestera ibili ahal izateko.

Azkenik, 83-84 ikasturtean, autismoaren ezaugarrietan sakontzeko eta trastorno honi eman behar zaion heziketa trataera-ren inguruko ikastaroak egin ostean, Zen-tro Espezifikoan lanean hasteko aukera izan zen, eta integrazioaz hitz egiten has-teko aukera izan zen.

2 irakaslek zuzendutako ikasle talde bat izan zen esperientzia honekin hasten le-hena, eta ez zituzten zailtasun txikiak izan horretarako, irakasle guztiek ez baitzituz-ten integrazioa dakartzan onurak sines-ten, eta sarritan, Hezkuntza Salari laqun-tza eskatu behar izaten baitzitzaion nau-rron eskubideak bermatzeko.

Ibiltzen hasi zen bidē luzea beste leku batzuetara zabaldu zen. Eibarren 1982an, ASPACEk utzitako lokal batzuetan ikas-gela bat sortu zen, eta geroztik, eskola askotan izan gara eta ikasle askoren zainketaz arduratu gara, egun Elgoibarren dagoen egoitzan kokatzea lōrtu arte. Ho-

nekin batera, Beasainen beste ikasgela bat zabaldu zen eta 1986an beste oati, Arrasateko Nuestra Señora De las Mer-cedes ikastetxean.

1986-8/ ikasturtean Donostian 3 ikasgela gehiago zabaldu ziren Notre-Dame, la Salle eta Compañía de María ikaste-txeetan.

Erreterian, Irunen, Lasarten, Andoi-nen, Hondarribian... herri askotan izan gara gure arreta behar zuten haurrenga-na hurbildu nahian.

Heziketa arreta ere asko aldatu da: in-tegrazio zuzena eta alderantzikatua, ko-

munikazio sistema alternatiboak, denbora berean egin-dako eskolatzeta, Teacch metodoa, programazio positi-boa, ikasgeletan 50 profesional baino gehiagoren arreta eta atentzio zuzena...

Eta GAUTENA zer? 25 urte igarota, sortzaileetarako batzuek, guraso, profesional eta, jakina, autismoa duten pertsona batzuek hemen jarraitzen dute. 13 dirā egun Gipuzkoan dauzkagun ikasgelak, eta 60 ikaslee-tarik gora daude hauetan.

Lan honekin jarraitzea espero dugu, behar gaituzten heinean gure ikasleriaren garapena bultzatuz, eta qu geu ere eurekin hazi eta hezi. Musu bat hauek guztientzat.

M^a José González Is
Heziketa Zerbitzuaren arduraduna



EGUNEKO ZERBITZUA

Topikoa dirudi, baina 25 urte ditugu jada. Askori 25 urte soilik izatea gustatuko litzaiguke baina, txantxak alde batera utzita, 25 urte denbora luzea dela esan dezakegu, batik bat atze-ra begiratu eta bidean geratu dena ikusten badugu.

Une gogoangarri honetan, zerbitzuaren parte izan diren pertsonen aurpegiak (Juliet-etik hasi, lankide, erabiltzaile eta edozertan parte hartu duen azken pertsona arte) irribarre batez oroitzen ditugu, desio, irrika eta lan ugariak konpartitzeko aukera izan genuelako.

Asko aldatu garena dio abestiak, denbora honetan guztian zehar guztiok ikasi dugula, norberak bere paperean eta bere erantzukizunari dagokionean, eta etengabeko ikasketa honekin, gure mugekin, zalantzekin, eta sarritan, ziurgabetasunarekin, Eguneko Programa pixkanaka-pixkanaka finkatzen Joan da eta gainera, alor honelako beste enfiteentzat erreferente bihurtu da.

Denbora aurrera doa etengabe, eta denbora igarotzearekin batera, 3 Eguneko Zentro martxan jarri ahal izan dira. Zentro hauek 70 plaza dituzte eta baita bi soziokomunikazio talde ere.

Dena den, zera azpimarratu beharko litzateke, plaza kopurua datu garrantzitsua bada ere, are esanguratsua da «Eguneko Zentro» konfiteptuak

izan duen bilakaera da. Bilakaera hau Elkartearen garapenarekin bat etorri da, eta bere bitartez, ekintza programa bat eskaini daiteke segurtasun osoz, eta ekintzokegokitu egingo zaizkiper unean uneko egoera etatestuinguruari, pertsona kolektibo honen eta beren familien interes eta beharrak errespetatuz.

Egoera honek, dena den, ezin gaitu erronka berrietatik at utzi, batik bat gehiago egokituriko zerbitzu eta programetan, eta interbentzio marko txikiagoetan. Ekintza programa egokituagoak eskaintzeri dagokionean, egitasmo berriak eskaintzeko, etorkizuneko Eguneko Zentroak eskualdeka banatzeko, euren familiara eta bizilekura hurbiltzeko asmoz, eta testuinguru sozial murriztagoan barneraturiko unitate txikiak sortzeko beharra dagoela ikusten dugu.

Ez litzateke bidezkoa ez aitortzea egitasmo berri bakoitzak ilusioz betetzen gaituela, eta egitasmo berri bakoitzak azken 25 urteotan lan honetan inplikaturik egon garen guztion itxaropena biltzen duela, eta ahalegin guztiak batuz lortuko dugula pertsona kolektibo honen beharrak asetzeko egokigoa izango den zerbitzua garatzea.

Agustín Hiera
EIZaren arduraduna.

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Autismoa eta bestelako garapen orokorreko trastornoak dituzten pertsonen eta euren familiei laguntzeko bideak sortzen hasi gineneko 25. urteurrena ospatzen ari garen honek, aukera berezia eskaintzen digu iraganera begiratu, eta gure zerbitzuaren etorkizunaren ikuspegi bat izan dezagun.

Begirada hau 1989ra doa, ekainaren 15ean lehen etxebizitza jarri baikenuen martxan, Errenteriako Xenpelarren. Etxebizitza honetan 6 pertsona heldu zeuden, profesional eta familien laguntzaz, Iprren pertsonalez beteriko bizi-estiloa izan zezaten, norbanakoarekiko laguntzaz etxebizitza horretan eroso bizi zitezaten, eta era berean, zahartzarotik hurbil zeuden pertsonen leku bat izan zezaten.

Ordutik gaur egun arte, etxebizitza mota ezberdinak garatzen Joan gara, gaur egun 6 mota ezberdin direnak, eta etxebizitza hauek laguntza-sistema ezberdinak eskaini nahi dizkiete, behar ezberdinak dituzten Elkarteako pertsonen. Bidea ez da erraza izan, eta batzuetan emaitza ez da nahi izandakoa, baina errealitatea zera da, zerbitzua malguta dela eta talde ezberdinei konponbideak ematea duela helburu. Oriamendi Etxea, Azkorte, Txarra eta Zarategi pertsona askoren lañaren emaitza da, eta 48 pertsonarentzako etxea eskaintzen lortu dute.

Etxebizitzan lan egin edo egiten duten profesionalen eginkizuna azpimarratu nahi genuke, gaur arte lorturiko emaitzentzat tresna erabakigarria izan baila. 25. urteurrenoko ospakizunean egin zen bezala, hasierakopunean, zerbitzua finkatzen ari zen une hiletan egindakopuna eskertu behar dugu bereziki, ez baitzen batere erraza izan.

Gainera, familiek beren senilartekoaren behar eta aukeren inguruan egiten duten kolaborazio eta jarraipena ere eskertu behar genuke. Guztiontzat ebaluazio eta errekonozimendua sistema garrantzitsua da.

Azkenik, erabiltzaileei ere eskaini nahi genieke gure errekonozimendua, eurek askotan gure mugak erakusten baitzizkigute, eta une batzuetan erantzukizun handiegia eskatzen badiegu ere, beste batzuetan erantzukizun hori aurrera eramatek aukera gutxi ematen baitzizkigute.

Etorkizunera begira dugun ikuspegia zera da, bide bat egin behar dela norberak edo bere ordezkariak ezarritako satisfazio pertsonal mailara heltzeko. Lanean jarraitzen dugu norberaren eta familien behar indibiduali hobeto egokitzeko. Guztion artean, Elkartearen sortzen joango diren etxebizitzaren alorreko etorkizuneko beharrak aseko dituzten egitasmo berriak definitu eta martxan jarri behar ditugu.

Félix Arregi
Etxebizitzaren arduraduna

AISSIALDI ZERBITZUA ETA FAMILIAR! LAGUNTZA

Bihar udalekuetara goaz, eta gaur gauean jende gutxi egingo du ongilo biharkoan pentsatuz.

Zuen seme-alabetariko askok hiru egun daramatzate motxila prestatzen, beste batzuek ezin dute motxila ikusi autobusera heldu aurretik. Batzuei udalekuetara ipateak izugarriko irrika sortzen die, beste batzuei ingurua, pertsonak... aldatzeak ikara pixka

bat ematen die, baina edonola ere zerbitzu berezia izan ohi da beti.

Guraioetariko askok ere ez duzte lasai lorik egingo. Bihar zuen seme-alaba badoa. Zer moduz pasako du? Ulertuko diote?... Batzuek ezin izan duzte plannik egin egunotan, beste batzuek bai,

baina horrek ez dio axola, zuen pentsamenduetan zuen seme-alabengana baitzaramatzate. Udalekuak zuentzat ere oso bereziak izaten dira.

Monitpre gehienek ere ez dute lasai lorik egingo gaur gauean. Bihar udalekuetara doaz, eta bertan izango diren pertsonak ezagutzen badituzte ere, zerbitzu berezia sentitzen dute. 15 egun hauetan behar asko ikasiko dute, monitpre gehiago ezagutuko dituzte eta guztientzako opor zoriotsuak lortzea lan erraza ez den arren, gustura egiten dute.

Etixerako itzuleraren bezperan loak hartzeko arazoak sortzen dira berriz ere. Batzuei oso laburra egin zaie, beste batzuei amaiezina.

15 urte baino gehiago daramagu udalekuak antolatzen. Gaur GAUTENAn lanean diharduten profesional ugari pasa dira udalekuetatik, eta baita Elkarteak zainitzen dituen pertsonetarik gehienak ere. Udalekuak bereziak dira oso, eta euren arrastoa uzten dute guztiongan. Hainbatek udaleku zehatz bat oroitzen dute modu berezian, beste hainbatentzat, berriz, oroitzen ari garen txarra da. Udalekuetara joaten urte asko badaramatzagu ere, udaleku bakpiza ezberdina da, ez du aurrekoarekin zerikusirik, eta ni jada, hurrengo heltzeko irrikaz nago.

Jimmy Brosa
Aisialdiaren eta familiariko
Laguntzaren arduraduna.



FAMILIEN IRITZIA

25. urteurreneko ospakizunaren aurrean, ñire leñen hitzak esker onez beterik dau-de, urteetan zehar lan egin duten gurasoei esker onez, eta baita mirespenez beterik ere, familia hauek erakutsi zulen kemenarekiko mirespenez, ezerezetik sortu baitzuten gaur egun daukaguna. Guretzat oso garrantzitsua izan da, une okerreanean, GAUTENAKO atea zabalik izatea, baina ez bakarrik gure semearentzat, baita guretzat ere, gure galdera eta ziurgabetasunentzat.

Denbora labur honetan, egitasmo honetan familia bat gehiago sentitzen gara, eta horregatik, nik ez dut guztia egina dago-ela onartu nahi. Mundua aurrera doa beti, guztiok hobe bizi nahi dugu eta gure seme-alabei etorkizun hobea eskaini, eta horregatik, euren seme-alaben etorkizunaren alde lan egin zuten guraso haiek bezala, nik egun daukaguna hobetzen jarraitzeko beharra sentitzen dut.

Haur bat espero duzunean usté duzu edozertarako prest zaudela, baina emaitza zuk espero bezalakoa ez denean, eramateko oso zaila den kontrolik eza sortzen da. Orain, GAUTENARI eta bertako profesional guztiei esker, ñire semea askoz ere hobeto ulertzen dúdala usté dut.

Gure familian bere heziketa gure beste alabarena bezain garrantzitsua da. Bere etorkizuna momentuz gure esku dago, baina bere esku egotera iristen denean, ez dakigu bitariko nork harrituko gaituen gehiago.

Blanca Aranguren Achótegui
Pabloren ama(11 urte)

Uztailan Txemak 40 urte beteko ditu. 2 besterik ez zituela ohartu ginen zerbait ez zihoala ongi, eta arazoa serioa zela. Mediku asko ikusl genituen, baina inork ez zekien zer gertatzen zen azaltzen; «buruko atzerapen sakona», «atzerapenari loturiko gortasuna»...

AUTISMO hitza leñen aldiz 12 urte zituenean entzun genuen.

Zerbait egin behar genuen, eta ziur geunden gure antzeko egoeran guraso gehiago egongo zirela.

Egunkarian argitaraturiko iragarki batek beste 6 familiarekin harremanetan jarri gintuen.

Astero biltzen ginen, gure etxeetan, lantokietan edo kafetegiren batean. Denok argi genuen lortu beharreko gauzarik garrantzitsuenak Zentro bat, pertsonal egokia, eta zailena, DIRUA zirela.

Gure ideiak aurrera eramateko gure familia, lagunak eta Instituzioetan eragina zuten pertsonak jarri genituen martxan. ESKATZEKO beldurra galdu genuen. Helburuak merezi zuen, eta Santo Tomas egunean txistorra frijitzen edo edozein lotería mota saltzen ibili ginen.

Lan eta kemen handiz, Aieteko Zentroa lortu genuen azkenean. Garrantzitsuena bagenuen. Gero pertsonala, eta gaia ezagutzen zuen konfidantzazko mediku bat kontratatzea etorri zen. Askotan ezinezkotzat jotzen genuen miraría egia bihurtu zen.

Une horretan, Txemak 15 urte zituen jada. Sufritu genuen guztia pixkanaka ahazten joan zitzaigun.

Sinestezina zaigu jada 25 urte ¡garó direía pentsatzea, gure seme-alabak independizatzea, heziketa eta etxe bat izatera heldu direía eta aste bukaeretan bisitan itzuli familiarekin gozatzeko aukera dutela pentsatzea.

Gu geu ere askoz ere lasaiago bizitzen hasi gara, oporrez gozatzeko, gure semea bere taldean, bere etxean zoriotsu déla eta zentzu guztietan ongi zainduta dagoela ziur baikaude.

Mary Alfonso
Txemaren ama (40 urte)

